

Wilhelm von Humboldt-en liberalismoaz

(On Wilhelm von Humboldt's liberalism)

Casquette, Jesús

UPV/EHU. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak.
Sarriena, z/g. 48940 Leioa

BIBLID [0212-7016 (2003), 48: 1; 249-264]

Filosofia politikoan eragin iraunkorreko ekarpenak egin zituen Humboldt-ek. Ondorengo lerrotan azaltzen den gizabanakoaren autodeterminazio eskubidearen ulermen jakin batetik abiatuta, Los límites de la acción del Estado (1792) delako liburuan pentsalari prusiarrak eskubide negatiboen defentsa eta Estatuaren neutraltasuna aldarrikatzen ditu. Zentzu honetan, Humboldt egungo neoliberalismo filosofikoaren aitzindaria dugu. Baieztapen hau frogatzeko asmoz, Humboldt eta Nozick filosofo eskuin-libertario garaikidearen planteamenduak alderatzen ditugu.

Giltza-Hitzak: Humboldt. Liberalismoa. Neoliberalismoa. Multikulturalismoa. Tolerantzia.

Partiendo de una defensa derecho de autodeterminación individual determinada, Humboldt defiende los derechos negativos y la neutralidad estatal. En este sentido, es un precursor de la filosofía neoliberal contemporánea. Con el fin de apoyar una afirmación tal, contrastamos el pensamiento de Humboldt con el de Nozick, probablemente el máximo exponente en nuestros días de la filosofía libertaria de derechas, vale decir neoliberal.

Palabras Clave: Humboldt. Liberalismo. Neoliberalismo. Multiculturalismo. Tolerancia.

En partant d'une défense du droit d'autodétermination individuel déterminée, Humboldt défend les droits négatifs et la neutralité étatique. Dans ce sens, c'est un précurseur de la philosophie néolibérale contemporaine. Afin d'appuyer une telle affirmation, nous contrastons la pensée de Humboldt avec celle de Nozick, probablement le plus grand représentant à l'heure actuelle de la philosophie libertaire de droite, c'est-à-dire néolibérale.

Mots Clés: Humboldt. Liberalisme. Néoliberalisme. Multiculturalisme. Tolérance.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

Wilhelm von Humboldt jakintza-arlo eta jarduera anitzetan gailendu zen pentsalaria dugu, besteak beste diplomazian, prusiar hezkuntza-erreformaren buruzagitzan, hizkuntzalaritzan edota, guri hemen interesatzen zaigun ikuspuntutik, pentsamendu politikoan.

Humboldt pentsalari politikoa den aldetik liberalismoaren esparru ideologikoan kokatu ohi zaio, eta zuzenki gainera ondoko orrialdeetan ikusiko dugun legez. Baina zer liberalismo mota defendatu zuen? *Los límites de la acción del Estado* (1792)¹ delako liburuan jasotzen dira Humboldt-en pentsamendu politikoari buruzko ideia nagusiak. Beraz, bertan jasotzen diren ideietan jarriko dugu arreta hemendik aitzina. Aipatu idazkian liberalismoaz luzatzen duen bertsioak badu, gure ustez, antzekotasun ugari azken urteotan, ekonomia arloan batez ere, baina ez horrenbeste filosofia politikoaren esparruan, gailentasuna hartu duen liberalismoaren irakurketa jakin batekin. Irakurketa honen arabera, Estatuaren esku hartzeak bizitza sozial, ekonomiko zein kulturean ahalik eta txikien behar du izan, autonomia indibiduala errespetatzearen hori baita jokabide zilegi bakarra. Osterantzean, Estatuak helbururen bat desiragarritzat jotzen duenean eta horri ekiten dionean (dela berdintasuna, dela hizkuntza gutxiagotu baten defentsa), orduan zenbait giza-banakoren eskubideak urratzen dira ezinbestean eta, horrekin bat, beraien autonomia bortxatzen da. Eta hori, liberalismoaren interpretazio honetatik, deitoragarria litzateke guztiz, iliberalismoaren atzaparretan jausi garela esateraino.

Filosofia politiko eta moralaren esparruan jarrera honi sostengu intelektualik borobilduena eman dion pentsalaria Robert Nozick iparamerikarra dugu, 1974an *Anarchy, State, and Utopia* delako liburuan hain zuzen ere. Ikerketa lerro interesgarria bezain emankorra izango litzateke, ezbairik gabe, Humboldt eta Nozick-en arteko hari komunetan sakontzea. Izan ere, Humboldt egungo eskuineko libertarismoa edota neoliberalismo filosofikoaren aitzindari bezala ulertzea ez litzateke urrutiegi joatea. Hipotesi hau frogatzeko asmotan, jarraian bi autoreon planteamenduak alderatuko ditugu. Hau helburua izanik, hiru ardatz isolatuko ditugu gure bi autoreon planteamenduak erkatzeko: 1) eskubide negatiboen eta segurtasunaren defentsa Estatuaren ardura legitimo bakarra legez; 2) Estatuaren neutraltasuna aldarrikatzea, eta; 3) alderdi moral zenbait. Aspektu hauetan guztietan sartu baino lehen liberalismoaren muin moralaren azterketan murgilduko gara, ondorengo arrazoibidea egokiago ulertzen lagunduko digulakoan. Ekin diezaiegun, bada, Humboldt eta neoliberalismo filosofikoaren arteko (Nozick-en planteamenduen bitartez, batez ere, baina ez soilik) alderaketari ardatz hauen inguruan.

1. *Ideen zu einem Versuch, die Grenzen der Wirksamkeit des Staates zu begrenzen* du izenburu jatorrizko idazkiak. 1791ko udaberrian dagoeneko egina, 1792an datatua, baina bera hil ondoren, 1851an, argitaratua.

1. LIBERALISMOAREN MUIN MORALA

Beste ezer baino lehen gizabanakoaren ikuskera den filosofia liberalaren muinean, aitzindari klasikoengandik gaur egungo korrante filosofiko honen ordezkarienganaino (Locke-rengandik Rawls-engana, John Stuart Mill-engandik Dworkin-engana), gizabanakoek beraien bizimodu onaren ikuspegiak erabakitze askatasuna izan behar dutenaren ideia aurkitzen dugu. Ikuspegi honen arabera, gizabanakoa bere mundu moralaren sortzaile bakarra da, bizimodu desiragarriaz erabakitze gaitasuna duena, kanpotik (autoritate politikoaren egituretatik edota erlijioaren mundutik, adibidez) ezarritako ezein ikuspegiarik gaitzesten delarik. Hortik, esaterako, sozialismo erreala edota islamismoaren salaketa, gizabanakoari behartzen baitzaio bizimodu onaren ikuspegi jakin bat besarkatzera, disidentzia arriskuz beteriko aukera bilakatzeko delarik. Tradizio filosofiko honen ikuspuntutik, orduan, gizaki baten bizimoduak garapen egokia dauka baldin eta bere baitatik sorturiko baloreen arabera gidatua bada, inoiz ez kanpotik ezarritakoaren arabera. Edota, beste hitzetan, zilegi den bizimodu onaren ikuskera bakarra nork bere buruari ezarritakoa da, eginkizun horretan gizabanakoaren autonomia eta individualtasuna irizpide bakarrak izanik. Ondorioz, harreman ekonomiko, erlijioso, kultural, sexual eta abarrek ez dituzte gizabanakoak muga jakin batzuen barruan hesitu behar; aitzitik hauek askeak izan behar dute aipaturiko edozein harreman mota kolokan jartzeko, honek erakargarria izateari uzten dion momentu beretik. Honako ideia hauek osatzen dute liberalismoaren muin morala, hots, historian zehar liberalismoa gainerako ideologietatik bereiztu izan duen ezaguerria.

Liberaletik “bizimodu edota bizitza onaren ikuskera” esaten dutenean, gizabanakoek hausnarketa sakon baten ondorioz bizimodu jakin batekin duten konpromisoa adierazi nahi dute. Gure gizarteetan, eguneroko esperientziak bizimodu onen aniztasuna islatzen dituzten honako adibide hauek aipa ditzakegu: kontenplaziozko bizitzan murgilduta dagoen filosofoak bizimodu onaren ikuskera bat dauka, zerbeza kaxa bat eskura duelarik asteko hainbat egunetan telebista aurrean amaigabeko orduak ematen dituen futbolzale amorratuarena bezain errespetagarria; bizimodu on batek irudimen sexual ezberdinen adierazpenak, homosexual izaerakoak barne, errespetatu beharko litzukeela sostengatzen dute batzuk, beste batzuk, aldiz, bizimodu on bakarra sexuak espezie ugaltzea helburu duena sinesten duten bitartean; pertsona batzuen arabera, opera kantagintzaren adierazpenik bikainena den bitartean, beste batzuentzat *hip-hop*-a edota bakailaoa izango litzateke; e.a.

Filosofia politiko garaikidearen berpizkundearen erantzule nagusiaren arabera, “ni-a bere helburuak baino lehenagokoa da” (Rawls, 1971: 560), honekin zera adierazi nahi duelarik: edozein egitasmo edota harreman aurrean, gizabanakoak bere “autodeterminazio” eskubideari eusten diola. Hau da, ni-ak helburu oro osatu, aztertu eta berrikusi dezake bere inguruetik etengabe jasotzen duen informazio, adibide edota argudioen eraginpean, bera baita bere bizitzarekin zer egin eta berau nola gidatu erabaki dezakeen baka-

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

rra². Goian aipaturiko liberalen arabera, beraz, autonomoak eta gure buruarren jabeak garen gizakioek bizimodu on jakin batekiko leialtasuna jarrera kontingentea da, ez berezkoa (*constitutive*) (Larmore, 1990: 343). Autodeterminazioak, zentzu honetan, merezi dituzten eta hutsalak diren bizibideen artean erabakitze ahalbidetzen digu gizakioi. Kontrako jokabidea hartzea, hau da, bizimodu onaren ideia zehatz bat bultzatzea eta kanpotik gizabanakoei ezartzea (“ongi komunaren politika” bat bultzatzea, Taylor-ren –1997– esanetan) autodeterminazio printzipioaren kontrakoa izango litzateke, inork ez baitaki gizabanakoak berak baino hobeto zer den bere onerako eta zer bere kalterako, zer den baliotsua eta zer hutsala, zer komeni zaion eta zer behar duen ekidin.

2. ESKUBIDEEN ULERMEN NEGATIBOA ETA ESTATUAREN BIDEZKO ESKUMEN ESPARRUA

Los límites de la acción del Estado delako idazkiaren hasierako orrialdeetatik bertatik, Humboldt-ek agerian uzten du bere harridura pentsamendu politikoaren gabezi deigarri bezain tamalgarri baten aurrean. Gure pentsalari alemaniarraren iritziz, botere politikoaren inguruko hausnarketa intelektualekin arduratu izan diren adituek partaidetza politiko edota botere banaketa bezalako antolamenduak eta auziak izan dituzte mintzagai, baina zoritxarrez hausnarketa esanahitsu ororen erdigunean egon beharko lukeen kezka bat saihestu izan dute, hain zuzen ere botere politikoaren ardura legitimoarekin lotuta dagoena:

“a la vista de todo Estado nuevo a mí me parece que debieran tenerse presentes siempre dos puntos...: uno es el de determinar la parte de la nación llamada a mandar y la llamada a obedecer, así como todo lo que forma parte de la verdadera organización del gobierno; otro, el determinar los objetivos a que el gobierno, una vez instituido, debe extender, y al mismo tiempo circunscribir, sus actividades. Esto último, que en rigor invade la vida privada de los ciudadanos y determina la medida en que éstos pueden actuar libremente y sin trabas, constituye, en realidad, el verdadero fin último, pues lo primero no es más que el medio necesario para alcanzar este fin” (Humboldt, 1988: 4).

Teoria mailan bi jarrera edota erantzun ezberdin dago Humboldt-en ustez lehentasuna izan beharko lukeen gai honen inguruan. Batetik, autore batzuk Estatuaren eskumen zilegi bakarra bere eraginpeko hiritarren segurtasuna denaren ideia defendatu izan dutenena. Tradizio kontraktualista klasikoa (Hobbes edota Locke bezalako gizarte-hitzarmenaren metaforaren defendatzaileak, alegia) jarrera honen adibidea izango litzateke. Izan ere, autore hauen iritziz natura egoeran aurkitzen diren gizabanakoek nork bere burua eta ondasunak defendatzeko eskubide naturalari uko egiten diote berau Estatuaren esku uzteko, hausnarketa arrazional baten ondorioz gizabanakoak

2. Hortik liberalek heziketa, adierazpen, prentsa, e.a. bezalako askatasunenei ematen dieten garrantzia, honako askatasun hauek posible egiten baitute gure bizitzan baliotsu eta desiragarri denaz deliberatzeko eta, horrela, ongi pentsaturiko, arduratsua den, norabide bat hartzeko.

konturatzeko baitira segurtasuna eta jabegoa bermatzeko ahaleginean Estatu askoz eraginkorragoa dela gizabanako isolatuak baino.

Beste planteamendu zeharo ezberdin baten arabera, autoritate politiko legitimo batek bere eraginpeko hiritarren ongizate fisiko eta moralari ere jarraitu behar die modu aktibo batez. Hona, jarrera honen adibide gisa, 1789.eko *Gizon eta hiritarraren eskubideen aitortpena* delakoan Frantziar iraultzaileek adostu zuten printzipioetariko bat, gutxi gora-behera Humboldt bere ikuspegia mamitzen ari zen momentu berean adostutakoa: “Los socorros públicos son una deuda sagrada. La sociedad debe velar por la subsistencia de todos los ciudadanos desgraciados, sea procurándoles un trabajo, sea asegurando los medios de existencia de quienes no estén en condiciones de trabajar” (21. artikulua). Zentzu berean, aipaturiko Aitorpenean, bere 22. artikuluan, nekazariak frantziar hiritarrengan bilakatzeko ibilbidean hain erabakigarri suertatuko zen heziketa publikoaren defentsa sutsuarekin egiten dugu talka: “La instrucción es necesaria para todos. La sociedad debe favorecer con todas sus fuerzas los progresos de la razón pública y poner la instrucción al alcance de todos los ciudadanos”³.

Humboldt-en ustez, gizabanakoaren “ongizate positiboa” (“positiver Wohlstand” jatorrizko hitzetan) bere ardurapean hartzen duen Estatu gaitzesgarria da oso eta, ondorioz, jarduera hori ez-bidezkotzat jo daiteke:

“Me refiero aquí, por tanto, a todos los intentos del Estado por elevar el bienestar positivo de la nación; a todos sus cuidados para la población y del sustento de sus habitantes, unas veces directamente, con sus establecimientos de beneficencia, y otras veces indirectamente, mediante el fomento de la agricultura, de la industria y del comercio; me refiero a todas las operaciones financieras y monetarias, a las prohibiciones de importación y exportación, etc. (en la medida en que persigan ese fin); y, finalmente, a todas las actuaciones para prevenir o reparar los daños causados por la naturaleza; en una palabra, hablo de todas las instituciones del Estado que se propongan mantener o fomentar el bienestar físico de la nación...” (*ibid*: 22-3).

Ongizate positiboa bultzatzeko modu zehatz bat, Frantziar iraultzaileen esanetan ikusi ahal izan dugun moduan, heziketa publikoaren sustapena da. Honen etsai agertzen da Humboldt: “Me parece que la educación pública está totalmente fuera de los límites dentro de los cuales debe el Estado mantener su actuación” (*ibid*: 67).

Humboldt-ek hobesten duen jarrera argi dago honez gero. Baina, zergatik gaitzesten du Estatuaren partehartzea heziketa bezalako esparruetan gizabanakoaren ongizate fisiko zein moralaren aitzakiaz? Puntu honetan, Humboldt bere azalpenetan gehiegi luzatzen ez den arren, badirudi gizabanakoaren autonomiaren ideia estu eta zorrotz bati eusten diola. Honela: “Para mí, el

3. Bere garaiko Alemanian hain hedatuta zegoen jarrerari jarraikiz, Humboldt ez zuen guztiz onartu Frantziar Iraultzaren garapen politikoa: “Afirmaban [Humboldt, Goethe, Schiller] la victoria de la libertad, pero negaban su realización concreta” (J. Abellán, 1981, 106 or.).

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
 Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
 Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

supremo ideal en la coexistencia de los seres humanos sería aquel en que cada uno se desarrollase solamente desde sí mismo y en virtud de sí mismo” (18. or.). Itxura batez, orduan, Humboldt-en pentsamenduan hain garrantzitsua den *Bildung*-a⁴ (“El verdadero fin del hombre... es la más elevada y proporcionada formación posible de sus fuerzas como un todo”; *ibid*, 14) nork bere baitatik garatu behar du, inoiz ez kanpoko laguntza edota akui-luei esker. Gizabanakoaren indibidualtasuna, beste hitzetan, norberaren arte-lana balitz bezala ulertu beharra dago, norberaren barne baliabide eta adoreri esker erdietsia. Menze-ren esantean, “Prestakuntza da, beraz, giza bizitzaren helburu gorena, baina prestakuntza hori ezin da eraiki besteek alde aurretik idatziriko plan baten arabera; aldiz, prestakuntza da bakarrik norberaren prestakuntza den neurrian” (Menze, 2001: 18). Ondorioz, giza-kiok gure baitan daramazkigun ahalmenek ez dute kanpoko eraginik jasan behar, ez alde ez kontra, ez ahalmek bultzatuz ezta ere berauek mugatuz: “Indibidualitateak ez du izan behar estutzen eta zapaltzen duten indarren mendeko, autonomo baizik, libre. Berak beretzat sortu duena baino ez da, bere-beraren obra” (*ibid*: 20). Hau da, erabateko askatasuna, autoritateen interferentzia eza bezala ulertua, ezinbesteko suertatzen zaio gizabanakoari bere gaitasun guztiak modu egoki batez garatzeko. Humboldt-en pentsamenduari berezko zaion askatasun negatiboaren defentsak, bere muturreko indibidualismoak esan liteke, antz ugari du anarkismoaren adar “berekoia-”rekin, Stirner-en obran beste inon baino argiago adierazten den moduan (Woodcock, 1962: 87-97).

Segurtasuna edo zorientasunaren defentsa, hona hemen aurrez aurre Humboldt-en aburuz Estatuaren betebeharrei dagokienez dauden ikuspegi kontrajarriak. Iradoki moduan, haietako bat baino ez da zilegi izango gizabanakoaren ahalmek ahalik eta garatuen nahi duen Humboldt-entzat: “el mantenimiento de la seguridad, tanto frente al enemigo exterior como frente a las disensiones interiores, debe constituir el fin del Estado y el objeto de su actividad” (*ibid*: 51); edota, beste pasarte batean, “que el Estado se abstenga totalmente de velar por el bienestar positivo de los ciudadanos y se limite estrictamente a velar por su seguridad entre ellos mismos y frente a los enemigos del exterior, no restringiendo su libertad con vistas a ningún otro fin último” (*ibid*: 43). Estatuaren xede zilegien artean, beraz, ez da inolaz ere egokitzen gizabanakoen ongizatea edota zorientasunaren sustapen publikoa: “que el Estado se abstenga totalmente de velar por el bienestar positivo de los ciudadanos y se limite estrictamente a velar por su seguridad entre ellos mismos y frente a los enemigos del exterior, no restringiendo su libertad con vistas a ningún otro fin último” (*ibid*: 43). Izan ere, gizabanako batzuen ongizatea sustatzeak beste gizabanakoen eskubideen urratzea dakar berekin ezinbestean, eta hori onartezina da Humboldt-en ikuspuntutik, nahiz eta azken helburuak nahigarriak izan: “no es bueno que el Estado obligue a un ciudadano, en contra de su voluntad, a hacer algo en favor de otro,

4. “Bildung” hitza formazio, heziketa edota, Joxe Azurmedi-k jaso duen moduan itzulpen egokiagoaren ezean, humanismo bezala itzuli izan da. Ikus J. Azurmendi, 1996. Vogel-en ustez, “Bildung”-a “Humboldt-en teoria politikoa eta moralaren funtsezko kontzeptua da” (1982, 82 or.).

por más cumplidamente que pueda ser recompensado por ello” (*ibid*: 124). Are gehiago, Estatuak ongizate positiboa bere gain hartzen duen momentu beretik jokabide honen beste desabantaila bat azaleratzen da. Izan ere, ongizate erakundetuarekin batera (Ongizate Estatu modernoari leporatu zaion moduan) gizakiek uzten diote elkar laguntzeari borondatezkoa den modu batez. Beste hitzetan, Estatuaren paternalismoak eta elkartasun sozialak elkarren aurka jotzen dute Humboldt-ek zehazten duen honako lege honen arabera: “Cuanto más se encomienda uno a la ayuda tutelar del Estado, así tiende, o en mayor medida todavía, a confiar en ella la suerte de sus conciudadanos. Y esto debilita la solidaridad y frena el impulso de la ayuda mutua” (*ibid*: 27). Zentzu berean, eta legeak simple, orokor eta urriak izan behar direnaren gomendioa luzatu ondoren, Humboldt-ek dio: “La mayor parte de las cosas queda siempre reservada al esfuerzo voluntario de los ciudadanos” (*ibid*: 82).

Robert Nozick filosofo iparamerikar garaikidearen planteamendua, bere aldetik, eskubideen defentsa negatiboari eta segurtasunari dagokienez ez da larregi urruntzen Humboldt-enengandik. Bera ere, Humboldt bezala, segurtasuna/zoriontasuna binomioarekin agertzen da kezkatuta. Guri interesatzen zaigun ikuspuntutik, *Anarchy, State, and Utopia* izenburu duen liburuan arreta berezia jarriko dugu⁵. Bertan, John Rawlsek 1971ean *A Theory of Justice* liburu mamitsu eta garrantzitsuan proposaturiko justiziaren teoriari (zeinaren arabera liberal-igualitarismoaren eta, beraz, Ongizate Estatuaren erakundearen justifikazio filosofiko-morala eskaintzen den; Humboldt-en terminologiaz baliatuz, beraz, liberal-igualitaristek ongizate positiboa zuzenetsi egiten dutela esan daiteke) alternatiba bat eskaintzen saiatuko da. Izan ere, eta egitasmo honen adierazgarri gisa, goiz liburuan Nozick-ek aitortzen du: “justiziaren teoria bat garatuko dut (eskubideen teoria). Teoria honek ez du estatu zabalago baten beharrik. Nire teoria honen tresneria erabiliko dut justizia bantzailearen adierazgarri diren eta estatu zabalago bat onartzen duten beste teoria berbanatzaile batzuk aztertu eta salatzeko” (Nozick, 1974: xi).

Nozick-en ustez, badira eskubide batzuk bortxaezinak direnak: “Gizakiek eskubideak dituzte, eta badira zenbait gauza bere eskubideak zanpatu gabe inolako pertsonak edota taldek egin diezazkietenak” (Nozick, 1974: ix). Honelaxe ematen dio Nozick-ek hasiera bere liburuari. Esaldi honen mamia, erroa eta ondorioak ongi ulertzeak bere filosofia politiko eta moralaren ulermena izugarri erraztuko digulakoan, ondorengo pasarteetan bere azterketari eta bere atzean ezkututzen diren ideiei ekingo diegu.

Nozick-en neoliberalismoaren oinarrian aurkitzen dugun funtsezko baieztapena edo axiomarik oinarritzkoena honako hau da: nor bere buruaren jabe bakarra da. Printzipio honi “norbereburujabetasuna”-ren (*self-ownership*) prin-

5. Nozick-ekin zintzo izatearren, esan beharra dago *The Examined Life* (1989) delako liburuan iritzi aldaketa bat izan duela aitortzen duela. Oraingoan esaten du ez duela bere burua eskumako libertarioekin identifikatzen. Dena den, aitorten hau ez da nahikoa izan bere izena libertarismotik aldentzeko, oraindik ere Nozick-en izena filosofia politiko honen adierazgarri nagusi bezala irakurtzen baita.

tzipioa deitu izan zaio (Cohen, 1995). Printzipio honen arabera, gizabanako orok badu bere burua eta ahalmenen gain erabatekoak eta baztertzailak diren eskubideak, hau da, norberak hoberen irizten dion moduan erabiltzeko eskubideak dira. Honek esan nahi du, gizabanakoak berak bere baimena ematen ez duen artean, ez diola inori ez zerbitzu ez emaitzarik eman behar.

Nozick-en teoriaren kritika zorrotz eta apurtzailea eskaini duen Cohen filosofo marxistaren arabera, printzipio honek osatzen du neoliberalismoaren muin morala (Cohen, 1995)⁶. Printzipio honek Kant-ek landutako “inperatibo kategorikoaren bigarren adierazpen”-ean aurkitzen du sostengu. Adierazpen honen arabera, gizakiei helburuak balira bezala kontsideratu behar zaie, ezein helburutarako bitarteko bezala erabilgarri ez direlarik. Honek esan nahi du gizarteak gizabanakoari berezko, erabateko eta bortxaezinak diren eskubide horiek errespetatu behar dizkiola, zeren eta errespetu hori “azpian datzan kantiar printzipioaren isla baita, zeinaren arabera gizabanakoak helburuak diren berez, eta ez bitartekoak; bere baimenik gabe, ezin dira ez sakrifika-tuak ezta erabiliak ere izan beste helburu batzuk lortzearren. Gizabanakoak bortxaezinak dira” (Nozick, 1974: 30-1). Gizabanako ezberdinak garen alde-tik, nork bere nahimen eta bizitza onaren ikuskera propioekin, badira muga batzuk galarazten dizkigutenak pertsona batzuk beste batzuen mesedetan bere burua sakrifika dezatela eskatzeko. Eskubideen teoria batek muga horiek zedarritu beharko lituzke, eta halaxe egiten saiatuko da Nozick proposamen libertarioa defendatzean.

Nozick-ek filosofia politiko eta moralaren arloan XX. mendean hain hedatu-ta egon den utilitarismoa gaitzesten du, gizarte batean zoriontasun- edo ongizate-maila kosta ahala kosta maximizatzen saiatzen delako, gizabanako batzuk beste batzuen bitarteko gisa erabiltzeko prest dagoelakoan. Nozick-en ustez, aldiz, bizitza, askatasuna eta jabegoa jomuga bezala duen Estatu batek gizabanakoak hartzen ditu “eskubide indibidualak dituzten pertsona gisa, horrek berekin dakarren duintasunaren jabe modura. Errespetuz trata-tuak izateak, hots, gure eskubideak errespetatuz tratatuak izateak, ahalbide-tu egiten digu geure bizimodua erabakitzea, banaka edo guk aukeratutakoekin batera, horrela geure helburuak lortuz edo geure buruei buruzko kontzepzioa landuz, ahal dugun neurrian bederen; eta horretarako, duintasun bereko jabe diren pertsonen lankidetzatza boluntarioaz laguntza izan-ik” (*ibid.*: 334)⁷.

6. Cohenek dio baita ere, norbereburujabetasunaren ideia honek marxismoa beste teoria batzuk baino deserosoago sentiarazten duela. Izan ere, nor bere buruaren jabe denaren ideia proletargoak jasaten duen zapalkuntzaren salaketaren oinarrian aurkitzen da baita ere. Ondorioz, zail egiten zaie marxisteei norbereburujabetasunaren ideia kontra jotzea bere teiliatuaren kontra harrikada ibili gabe. Ezinegontasun honek marxistak (askatasuna eta berdintasunaren defendatzaile direnak) norbereburujabetasunaren printzipioa berformulatzera eraman behar ditu. (Cohen, 1995, 6. atala bereziki).

7. Giza-zientzietan gertatzen ohi den paradoxa bat ikusten dugu Nozick-en kantiar ideia honen defentsan. Izan ere, Rawls-ek ere gizabanakoak helburu bezala eta ez bitarteko bezala ikustea proposatzen digu. Honek esan nahi du Rawls-en ustez ere filosofia utilitarioa hedatuegi dagoela. Beraz, autore bi ditugu ideia beretik abiatzen direnak eta, hala ere, zeharo ondorio ezberdinetara

...

Funtsean, Nozick-ek gizabanakoari berezko eta bortxaezinak diren eskubide batzuk badirela esaten duenean, buruan dituenak bizitza, askatasuna eta jabego eskubideak dira. Zeintzuk dira eskubide horien ezaugarriak? Nozick-ek hiru ezaugarri nabarmentzen ditu:

1. Lehenengoz, aipaturiko eskubide horiek negatiboak dira, hau da, gizabanakoak baditu kanpotik etorritako edozein indarraren aldetik (botere politikoarena, batez ere) erasorik ez jasateko eskubidea. Beste hitzetan esanda, ginabanakoak badu ez-interferentziarako eskubidea⁸. Eskubide hauek demokraziaren eredu “babestzailea”-k azpimarratu ditu kemen bereziaz. Eredu honek, Macpherson-en hitzetan, demokrazia antolamendu-forma politikorik egokiena izango litzateke, gobernuaren balizko gehiegikerien aurrean gizabanakoa hoberen defendatzen duena baita (1982: 33. Ikus baita ere Held, 1991).

2. Bigarrenik, eskubide horiek muga zehatzak (zeharkako-mugak, edo *side-constraints*) ezartzen dituzte gainerako gizabanakoen ekintzen gain. Hau da, ez da zilegi gizabanako baten askatasuna mugatzea beste askoren, edo guztien, ongizate, zorientasuna edota askatasuna handitzeko, utilitarismoak egiten duen bezala. Beraz, utilitarismoak ongizatea edo zorientasuna maximizatu nahi zuen modu berean (nahiz eta horretarako zenbait gizabanakoen eskubideak apurtu beharra izan), Nozick-ek dio berak “eskubideen utilitarismoa” duela helburu, eskubide negatiboena, hain zuzen ere. Egitasmo hau luzatu eta berehala, galdera bat etortzen zaigu burura: eskubideak bai, baina norenak? Gizabanakoarenak, jakina, ezin baita suposatu “gizartea” bezalako izaki metafisikoak plazer edota aiherra sentitzen duenik, hots, bere ongizatea maximiza dezakeenik: “ez dago on bat eta bere etekin bereziaren alde sakrifizioen bati eusten dion inolako *entitate sozialik*. Pertsona indibidualak baino ez daude, pertsona indibidual ezberdinak, bizitza propioak dituztenak. Gizabanako hauek beste batzuen mesedetan erabiltzea berau erabiltzea eta beste mesede egitea da. Besterik ez” (Nozick, 1974: 32-3).

3. Azkenik, eskubideen babesa sistema politikoaren ardura bakarra izan behar da. Zentzu honetan, eskubideak sakonak (*exhaustive*) dira. Ez dago arrazoi bakar bat ere eskubideen gain ezartzen denik, dela erabilgarritasun soziala, dela edertasuna, edo dena delakoa.

...

iristen direnak. Autore bi hauen arteko ezberdintasunak, eta puntu honi dagokionez, hitz gutxitan laburtzearren, zera esan dezakegu: Rawls-en ustez, gizabanakoaren eskubiderik garrantzitsuenetarikoa gizartearen baliabideen zati bat izatearena da; Nozick-en ustez, aldiz, gehien axola duten eskubideek nor bere buruaren jabe izateetik ondorioztatzen direnak lirateke. Horra hor, beraz, bi filosofia politiko ezberdinen ordezkatzailerek erakusten diguten ezberdintasun garrantzitsu bat.

8. Eskubide negatiboen beste muturrean, eskubide positiboak daude, ikusi bezala, Humboldt-ek ere gaitzesten dituenak. Eskubide hauen arabera, gizabanakoek badituzte botere publikoen aldetik laguntza jasotzeko eskubide batzuk, esate baterako, hezkuntza edota osasunerako eskubideak. Eskubide negatiboetaz gehiago jakin nahi izatera, jo dezala irakurleak Isaiah Berlin-en lan klasikora: “Two Concepts of Liberty”. In: I. Berlin, *Four Essays on Liberty*, Oxford, Oxford University Press, 1969.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

Eskubideen hiru ezaugarri hauetan oinarrituta –negatiboak, mugak ezarzteza besteen jokabideetan eta sakonak–, Nozick-ek esaten du eskubideek izaera absolutu eta bortxaezina daukatela. Ezin dira zapalduak izan ez ongizate publikoaren izenean eta, oro har, ezta beste eskubide batzuen izenean ere. Eskubideen zanaketa ez dago inoiz justifikatuta, eskubideak naturalak baitira. Orduan, gizarte politikoaren eginkizunik garrantzitsuena berauek bermatzea, ziurtatzea, izango da. Ez gehiago ezta gutxiago ere.

Honenbestez Nozick-en eskubideen ikuspegiaz. Berauek behar bezala errespetatzeko helburuarekin, eta Humboldt-en gomendioen ildo beretik, Estatuak segurtasunaren bermera mugatu beharko luke bere jarduera. Horixe gure pentsalariaren gomendioa.

Seguru aski, neoliberalak luzatzen dituzten neurri guztietatik ezagunena gutxieneko Estatuaren defentsaren proposamena da. Berbanaitzaile izateko asmoz sortu zen Ongizate Estatuaren gain neurri honek izan dezakeen eragin nabarmena kontuan hartzen badugu, ez da harritzekoa proposamen honek bazter askotatik erakarri duen arreta, ezker zein eskuinetik.

Bere teoriaren ezaugarri honi dagokionez ere, eta bere filosofia moralaren oinarritzko ideiekin gertatzen zen bezala, Nozick-ek argi uzten du liburuaren hasieratik bertatik zein den Mendebaldeko herrialdeetan Estatuak jokatu behar duen papera, beste hitzetan, zeintzuk izan behar diren bere xede legitimoak. Liburuaren lehenengo orrialdean honela dio: “Estuari dagokionez, gure ondoriorik garrantzitsuenak hauek dira, alegia, gutxieneko estatu bat, hau da, bortxa, lapurreta, iruzur, hitzarmenen betetzea, e.a. bezalako betekizun estuak betetzera mugatuta dagoen estatua, justifikaturik dagoela; izan ere, estatu zabalago batek, pertsonak zenbait gauza egitera derrigortuko dituelako, eskubideak bortxatuko dituela halabeharrez eta, beraz, ez duela justifikaziorik; eta gutxieneko estatua inspiratzailea hala nola zuzena dela. Baieztapen honetan azpimarratu beharrekoak diren ondoko bi ondorio hauek ditugu: estatuak ez lukeela bere tresneria behartzailea erabili behar hiritar batzuk beste batzuk lagundu dezatela, ezta ere bere ongizate edo babesa *propiorako* bideratuta dauden eginkizunak debekatu” (*ibid.*: ix. Autoreak berak azpimarratutako hitza). Laburbilduz, orduan, eskubide negatiboaren defentsa, segurtasuna bermatzea (polizia, ejertzitza edota epaitegien bidez), zilegi zaiola Estuari; eskubide positiboaren sustapena, aldiz, zeharo gaitzesgarria da zenbait gizabanakoren eskubideen kalterako gauzatu behar delako halabeharrez.

Gaur egungo Ongizate Estatuetan ondasunen berbanaketa, edota eskubideen inguruko egitasmo positiboak, zergen bidez burutzen da. Humboldt bere aurrekoa bezala (gogoratu bere *dictum*-a: “no es bueno que el Estado obligue a un ciudadano, en contra de su voluntad, a hacer algo en favor de otro, por más cumplidamente que pueda ser recompensado por ello” –Humboldt, 1988: 124) Nozick ere berbanaketarako tresna honen arerio sutsua da, zergak ezartzea askatasunaren kontrako neurria baita: “Irabazkinen gaineko zergak lan-derrigortuaren parekoa da... *n* lan-orduen mozkinak hartzea pertsonaren *n* lan-ordu hartzea bezalakoa da; pertsona bat beste bat *n* lan-ordu betetzera behartzea bezalakoa da” (*ibid.*: 169). Lan-derrigortuaren kontra bagaude (eta badirudi gure gizarte liberaletan printzipio adostua dela

hori), orduan beste batzuen egoera hobetzeko zergak ezartzea gaitzetsi beharko genuke. Justifikaturik dauden zerga bakarrak, jabegoaren babesa bermatzea helburu dutenak dira, hots, gutxieneko Estatu batek bere gain hartzen dituen eginkizun legitimo bakarrak betetzera bideratutakoak. Neoliberalen arabera, orduan, osasun-sistema publikoaren erabiltzaileek, gutxieneko diru-sarreraren jasotzaileek, bekadunek eta, oro har, Ongizatearen Estatuaren babesa momentu batean ala bestean jaso duen edonork, beste batzuen den dirua xahutzen dute; beraien lanaren etekinaz profitatu dira inolako merezimendurik gabe. Jakina, norbaitek bere kontzientziaren aginduei jarraituz pobreak laguntzea erabakitzen badu, Nozick-en oniritzia jasoko du, laudatu eta guttiz egingo du, baina argi gelditu behar da bere borondatez harturiko erabakia dela, eta ez inork derrigortua. Onargarriak diren arau bakarrak nork bere buruari ezarritakoak dira, inoiz ez kanpotik etorritako indar batek (Estatuak, alegia) ezarritakoak. Elkartasuna eta elkarrekiko laguntza, Humboldt-en kasuan bezala, borondatezkoak izan behar dira, norbere baitatik sorturikoak, baina ez kanpo-inposaketaren ondorioa.

3. ANTIPERFEKZIONISMO ESTATALA

Liberalismoaren muin morala laburbildu ondoren, lehen epigrafean jaso moduan, honako kezka hauek sortzen zaizkigu: zein izan behar da, ikuspuntu normatibo batetik, Estatuaren jokabidea gizartean dauden bizitza onaren ikuskeren aniztasunaren aurrean?; bizimodu jakin baten aldeko apustua egin behar du Estatuak ala denak balio moral berekoak balira bezala tratatu behar ditu? Puntu honetan, liberalen arabera autodeterminazio indibidualaren printzipioak eguneroko eginkizun politikoetan duen ondorioetariko bat zera dela esan daiteke: Estatuak neutrala izan behar duela gizabanakoek dituzten bizimodu onaren ideien aurrean. Kontuan harturik gizarte modernoetan bizimodu onaren ideiak anitzak (eta sarritan elkarren kontrakoak) direla, Estatuak hobe luke indibiduoek bultzaturiko egitasmo kultural, erlijioso edota beste mota bateko helburu jakin bati ez laguntzea. Bestela, politika “perfekzionista” bat segituko luke, hots, bizimodu onaren ikuskera jakin bat bultzatuko luke eta, hortaz, beste bat edo beste batzuk oztopatu edo gaitzetsiko lituzke. Jokabide horrek helduak, adimentsuak eta balio moral berekoak diren gizakiak ezgauzak balira bezala tratatzea izango litzateke. Ideologia liberalaren zutabea den preskripzio honen arabera, gizabanakoak beraiek dira bizitza ona bilatzen dutenak; Estatuak bilaketa hori antolatu eta zuzendu behar du, horretarako markoa eskaini behar du, baina inolako apusturik egin gabe, ez alde ez kontra. Aipaturiko zentzu honetan, beraz, Estatuaren neutraltasuna “neurritasunaren doktrina” dela esan daiteke (*doctrine of restraint*) (Raz, 1986: 110). Honela ere, Nozick-en esanetan, gutxieneko Estatuak ezin du ikuspegi edota jokamolde jakin bat gainezari behar bere eraginpeko hiritarren gain, eta “hertsiki *neutral* behar du izan bere hiritarrekiko” (Nozick, 1974: 33. Ikus baita 271-4 orr. Autoreak berak azpimarratutako hitza)⁹.

9. Esan behar da anti-perfekzionismo edota neutraltasunaren agindua ez dela eskuineko libertarismoaren bereizgarria, liberalismoaren adar nagusia den liberal-igualitarismoarena ere

...

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
 Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
 Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

Historikoki, Estatuaren neutraltasunaren preskripzio hau XVI. eta XVII. mendeetako gatazka erlijiosoetan du bere jatorria. Orduan, Locke-k bezalako pentsalariek erlijio ezberdinen arteko tolerantzia aldarrikatu zuten bake soziala eta jabegoa bermatzeko nahitaezko bide bezala. Ez kasualitatez, momentu horretan bertan kokatzen ohi da liberalismoaren jaiotza (Ikus Locke, 1985; Kamen, 1987).

Estatuak bizimodu onei buruzko ikuskera ezberdinen aurrean neutrala izan behar duela defendatzeak ez du esan nahi, ordea, bere esparruan bizi diren hiritarren askatasun indibidual, segurtasun fisiko edota ongizatearekin arduratu behar ez duenik. Alderantziz, aztergai ditugun liberal hauek, arlo horietan Estatuak jarrera aktibo bat hartu behar duela diote. Horrela bada, Estatu liberal batek, neutraltasunaren agindua errespetatzen duen neurrian behintzat, politika anti-perfekzionista bat izan behar du gidaritzat, ezin baitu bizimodu onaren ideia jakin bat edo beste bultzatu. Neutraltasunaren ideia-aren arabera orduan, bere jokabidean Estatuak ezin du bataren gailentasuna edota gutxiagotasuna aditzera eman bere baliabideak hara zuzenduz, horrela jokatz gero gizabanakoek bizimodu onaren ikuskeren gain eragina izango bailuke. Halako portaera bat onartezina litzateke ikuspuntu liberal batetik, ez bailuke errespetatuko gizakien autodeterminazio ahalmena, nor bere aldetik bizimodu ona aukeratzeko duen gaitasuna, alegia.

Estatuaren neutraltasunaren agindu liberalari dagokionez, Humboldt-ek tolerantzia eta neutraltasunaren inguruko planteamendu klasikoei jarraitzen diela esan daiteke. Izan ere, Erreforma garaiko guda erlijiosoen testuinguruan hainbat autorek egoera gatazkatsu iraunkorra saihesteko modu bakar bezala tolerantziaren bertutea aldarrikatu zuten. Estatuaren aldetiko tolerantziak neutraltasunaren preskripzioa ere eskatzen zuen, inoren (katoliko, protestante, ...) alde edo aurka ez azaltzea, alegia. Hona hemen Locke-k, bere aurreko hainbat pentsalariengan oinarrituz (Bodin, Altusio, Milton edota Spinoza bezalako filosofoengan), *Carta sobre la tolerancia* (1689) delako idazkian azaldu zuen ikuspuntua:

“estimo necesario... distinguir exactamente entre las cuestiones del gobierno civil y las de la religión, fijando, de este modo, las justas fronteras que existen entre uno y otro. Si esto no se hace, no tendrán fin las controversias que siempre surgirán entre aquellos que tienen ... un interés en la salvación de las almas, por un lado, y, por el otro, en la custodia del estado... Pero como ningún hombre soporta voluntariamente ser castigado con la privación de alguna parte de sus bienes y, mucho menos, de su libertad o de su vida, el magistrado se encuentra, por lo tanto, armado con la fuerza y el apoyo de todos sus súbditos a fin de castigar a aquellos que violan los derechos de los demás. Ahora bien, toda la jurisdicción del magistrado se extiende únicamente a estos intereses civi-

...

delarik (Rawls, Dworkin, Larmore edota Ackerman bezalako filosofo moral eta politikoei ordezkatzen duten adarra, alegia). Dena den, azken urteotan geroz eta protagonismo gehiago ari dira hartzen beste liberalismo mota bat defendatzen duten pentsalariak, zeintzuentzat posible den liberalismoaren muin morala errespetatzea neutraltasunaren agindua nolabait leunduz. Korrante liberal honen ordezkarien artean Taylor, Raz, Kymlicka, Margalit edota Tamir ditugu.

les, y todo poder, derecho y dominio civil está limitado y restringido al solo cuidado de promover esas cosas y no puede ni debe, en manera alguna, extenderse hasta la salvación de las almas” (Locke, 1985: 8-9).

Humboldt, bere aldetik, honako pasarte hauetako adierazpenek toleranzia eta Estatuaren aldetiko neutraltasun erlijiosoaren aginduarekin bat dato-rra ematen dute aditzera: “todo aquello que tiene que ver con la religión se encuentra fuera del ámbito de actuación del Estado, y que tanto los predicadores como el culto en general son instituciones de las comunidades que deben quedar al margen de un control especial por parte del Estado” (Humboldt, 1988: 91). Baina, hala eta guztiz ere, Estatuak jarrera aktibo bat hartzen badu, orduan nahitaez ikuskeraren bat lagundurik suertatuko da gizartearen dauden gainerako ikuspegien kalterako: “creo, sencillamente, que no es posible ninguna intervención del Estado en los asuntos religiosos que no desemboque, en mayor o menor medida, en un favorecimiento de determinadas creencias y que, por tanto, vaya a admitir en contra suya las razones que se desprenden de ese favorecimiento” (*ibid*: 70). Are gehiago, apustu jakin bat egiteak bitarteko behartzaileen bidez baino ez da gauzatzen: “los únicos medios de que puede servirse el legislador son la remoción de obstáculos, la familiarización con las ideas religiosas y el fomento del espíritu de la libre investigación. Si va más lejos, y trata de fomentar directamente la religiosidad o de canalizarla, o si incluso defiende unas creencias determinadas, lo que hace es exigir la fe basándose en la autoridad, en lugar de en una auténtica convicción” (*ibid*: 81).

Humboldt-en adierazpenetatik ez da errez ondorioztatzen toleranzia bezalako bertuteen aurrean zein izan behar duen Estatuaren jarrera. Bestela adierazita, tolerantziaren defentsa ongizate positiboaren sustapentzat har daitekeen ala ez eztabaidatzen hasiko bagina espekulazioaren esparruan murgilduko ginateke halabeharrez. Azter dezagun aipamen hau: “Con ello he querido... contribuir... a erradicar el más ligero asomo de intolerancia y a fomentar el respeto que todos los hombres deberían mostrar siempre hacia el modo de pensar y de sentir de los demás” (*ibid*: 75-6). Badirudi gizabana-koak, maila pertsonalean, axolagabetasunari bizkarra eman eta tolerantziaren defentsan, edota intolerantziaren erauztean, jarrera militante bati heldu behar diola, baina hortik Estatuaren jarrera zein izan beharko litzatekeen esatera jausi bat dago, aipagai dugun *Los límites de la acción del Estado* delako idazkian oinarriturik eman ezin dezakeguna.

Buka dezagun, bada, esanez Humboldt-ek kontu erlijiosoetan Estatuaren neutraltasunaren alde egin zuela, eta jokabide horrek tolerantziaren bertutea eskatzen zuela gatazka zibilak gainditzeko modu gisa. Puntu honetan, beraz, Humboldt-ek tradizio liberalaren sorbaldetan altxatzen da ekarpen handirik egin gabe.

Gaur egungo gizarte plural edota multikulturaletan tradizio liberalaren adar nagusien zutabe den neutraltasunaren agindua zurrun errespetatzeak, hots, aginte politikoak merkatu soziokulturealean esku ez hartzeak (esaterako, komunitate etnonazional baten hizkuntzari ekingintza positiboaren bidez

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

babesa emanez), zenbait kulturen galera ekarriko luke ezinbestean. Eta haien galerarekin batera, hainbat bizimodu onaren iturri, gizabanakoek beharrezkoak dituzten horietarikoak norberak berea sortu eta garatu ahal izateko. Askeak diren gizabanakoek beraiek, botere politikoaren aldetik inolako laguntzarik gabe, eutsiko diotela baliotsutzat jotzen duten bizimodu on jakin bati sinisteak, merkatua bera gizarte batean estimatuak diren bizimoduak mantentzeaz arduratuko delakoan, jarrera etnizidatzat edo likidazionista kulturaltzat jo daiteke hainbat kasutan¹⁰. Historiarekin ikuspuntu zientifiko batetik arduratzen den ikerlari orok ongi baino hobeto dakien moduan, gaurkokeriaren gezurrean (*falacia del presentismo*) erortzea izango litzateke hemen irudikatzen hastea Humboldt-ek zer proposatuko lukeen Estatuaren paperaz berak horrenbeste miresten zuen euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuen aurrean (eta gogoratu beharra dago Humboldt-entzat hizkuntza nazioaren –oraindik ere bere zentzu kulturallean– arima dela: “Die wahre Heimat ist eigentlich die Sprache”¹¹, aitortu zuen). Bestek beste, kezka horiek ez zirelako bere garaiko marko kategorialaren barruan egokitzen. Gainera, hemen gidaritzat izan dugun *Los límites de la acción del Estado* liburuan oinarriturik ezin daiteke urrunago joan, ondorio sendoagoak atera ahal izateko Humboldt-en lan zabala kontuan hartzea ezinbestekoa bailitzateke.

4. ALDERDI MORAL ZENBAIT

Eskuineko libertarismoak, Nozick-ek ordezkatzten duen korrante liberalak, alegia, gizabanakoaren autonomiaren defendatzaile leiala eta gogotsu den aldetik, hainbat auzi moralen aurrean defendatu duen jarrera bazterrak astindu ditu. Izan ere, gaur egun eztabaida biziak sortarazten duten eutanasia, inmigrazioa, drogen legezapena edota homosexualitatea bezalako auzi moralen aurrean pentsalari neoliberalak mantendu izan dituzten jarrerak esparru ideologiko aurrerakoa defendatu izan dituenetatik hurbil daude.

Hona hemen adibide bi neoliberalismoaren bozeramailea den *The Economist* aldizkari britainiarrean jasoak, editorial sailean biak. Lehenak eutanasia eskubidearekin zerikusia dauka:

“Mendebaldeko erlijioek utziezina den erantzun bat eskaintzen dute: gizabanakoek ezin dute bere buruaz beste egin, bizitza Jaungoikoak emana baita. Libe-

10. Hona hemen merkatu kulturalaren balioaren apologia –“likidazionista kulturaltzat” jo daitekeena– gordin bat beste pentsalari liberal baten hitzetan: “Corresponde a los miembros individuales de una cultura demostrar la excelencia de sus productos en el mercado cultural. Si tienen éxito, la lengua de esta cultura resultará atractiva a los demás... si una cultura y, por consiguiente, una lengua, no puede demostrar que los demás la elijan a la luz de las ideas sobre lo bueno, entonces merece desaparecer” (Knopff, 1979, 70 or.; Kymlicka-k aipatua, 1996, 158 or., 6. oin-oharrean). Antzeko zentzu batean, nahiz eta motelago, ikus Rawls: 1971; 331-2 orr.

11. “Egiazko aberria hizkuntza da”. Zentzu berean, Pessoa-k aitortu zuen: “Nire aberria portugaldar hizkuntza da”.

ralismo klasikoaren arabera, eta hauxe da *The Economist*-ek bere egiten duen pentsamendua, honi [eutnasiari] buruzko ikuspegia bestelakoa da. Gizabanakoe-
ek autodeterminatzeko eskubidea daukate, honen barruan –agian hori izango
litzateke bere adierazpenik goren– nork bere burua hiltzeko eskubidea ere sar-
tzen delarik” (1997ko Ekainaren 21a).

Inmigrazioaren arazoarekin lotuta dagoen bigarren adibidea berriagoa da oraindik ere. “Let the huddled masses in” azalean duen aleak honela dio: “kapital, ondasun edota mozkinen mugimendu askeak ekonomiarentzat onuragarria diren modu berean, lan-indarraren mugikortasun askea ere baditu bere abantailak. Komeni zaielako, herrialde aberatsak askoz eskuzabalagoak izan beharko liriateke jendea sartzen uzteko orduan” (2001ko Matxoaren 31a). Seguruena ikuspuntu ekonomizistegi eta instrumentalegiari heltzen dio *The Economist*-eko editorialgileak, gizabanakoaren mugikortasun eskubideari trabak jartzea ekonomiaren funtzionamendu egokia oztopatzen duela esanez laburbiltzen baita bere argudio nagusia. Baina guri interesatzen zaigun ikuspuntutik mezua argi dago: zenbat eta zabalagoa izan gizabanakoaren askatasun negatiboa (hau da, zenbat eta txikiagoa Estatuaren araugintza), orduan eta hobeto.

Eta zer zioen Humboldt-ek gai hauei buruz? Aipamen bakan batzuk salbu, gauza handirik ez, egia esan. Baina nahikoa esateko gizabanakoaren *Bildung* prozesua, hots, bere autodeterminazio ahalmena bere ondorio logikoetara eraman zuela identitate sexuala edota eutanasia bezalako auzi moraletan: “no sólo no se pueden castigar ninguno de los así llamados delitos carnales (excepción hecha del estupro), independientemente de que produzcan escándalo, el intento de suicidio, etc., sino que incluso debería quedar impune el homicidio realizado por voluntad propia de la víctima...” (Humboldt, 1988: 150). Honetan ere, neoliberalerikiko hurbiltasuna begi bistakoa da.

5. ONDORIOAK

Aurreko azterketan antzekotasun bat baino gehiago aurkitu izan dugu Humboldt eta eskuineko libertarismo garaikidearen artean. Eskubideen ikuspegi negatiboa eta segurtasuna Estatuaren eginbide zilegi bakarria defendatzen duen neurrian (hots, autoritatearen jarduera gizabanakoaren babesera bideratuta egon behar denaren ideia sostengatzen duen neurrian), Humboldt gaur egungo neoliberal filosofikoen aitzindaria dugu. Gainera, eta hau neoliberalen bereizgarria ez dela nabarmendu ondoren, Humboldt-ek Estatuaren neutraltasunaren ideari eusten dio, gure gizarte multikulturaletan gutxiengo etnonazionalen biziraupena oztoka dezakeen agindu liberala, alegia. Eta azkenik, bai Humboldt-ek bai eskuineko libertarioek, gizabanakoaren autodeterminazio printzipiotik abiatuta, bere buruaren subirano bakarria gizabanakoa bera denaren ideia seriotan hartzen dute eutanasia, homosexualitatea edota inmigrazioarekin loturiko hainbat arazo moralen aurrean.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.

Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.

Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

BIBLIOGRAFIA

- ABELLÁN, Joaquín. *El pensamiento político de Guillermo von Humboldt*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales, 1981.
- AZURMENDI, Joxe. "W. von Humboldt: el concepto de individuo y la búsqueda de un nuevo humanismo. Banakoaren kontzeptua humanismo berri baten bila". In: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 41 (2), 1996; 305-333 orr.
- CASQUETTE, Jesús. "Neoliberalismoaren oinarri filosofikoak". In: Alberto de Abajo González (arg.), *Neoliberalismoa*, Bilbo: UEU, 1999.
- CASQUETTE, Jesús. "Liberalismoa eta kultura". In: *Jakin*, 119, 2000; 49-64 orr.
- COHEN, Gerald A. *Self-ownership, Freedom, and Equality*. Cambridge: Cambridge University Press, 1995.
- DWORKIN, Ronald. "Liberalismo". In: Stuart Hampshire (arg.), *Moral pública y privada*, México: FCE, 1983.
- HELD, David. *Modelos de democracia*. Madrid: Alianza, 1991.
- HOBBS, Thomas. *Leviathan*. Bilbo: Klasikoak, 1995.
- HUMBOLDT, Wilhelm von. *Los límites de la acción del Estado*. Madrid: Tecnos, 1988.
- KAMEN, Henry. *Nacimiento y desarrollo de la tolerancia en Europa moderna*. Madrid: Alianza, 1987.
- KYMLICKA, Will. *Ciudadanía multicultural*. Barcelona: Paidós, 1996.
- LARMORE, Charles. "Political Liberalism". In: *Political Theory*, 18 (3), 1990; 339-360 orr.
- LOCKE, John. *Ensayo sobre el gobierno civil*. México: Aguilar, 1983.
- LOCKE, John. *Carta sobre la tolerancia*. Madrid: Tecnos, 1985.
- MACPHERSON, C.B. *La democracia liberal y su época*. Madrid: Alianza, 1982.
- MARGALIT, Avishai. *La sociedad decente*. Barcelona: Paidós, 1997.
- MENZE, Clemens. "Hitzaurrea. Wilhelm von Humboldt: bizitza, obra, eragina". In: Wilhelm von Humboldt. *Idazki hautatuak*. Bilbo: Klasikoak, 2001.
- MILL, John Stuart. *On Liberty and Other Essays*. Oxford: Oxford University Press, 1991.
- NOZICK, Robert. *Anarchy, State, and Utopia*. Cambridge: Blackwell, 1974.
- RAWLS, John. *A Theory of Justice*. Cambridge, Mass.: Harvard University Press, 1971.
- RAZ, Joseph. *The Morality of Freedom*. Oxford Clarendon Press, 1986.
- TAYLOR, Charles. *Argumentos filosóficos*. Barcelona: Paidós, 1997.
- VOGEL, Ursula. "Liberty is Beautiful: Von Humboldt's Gift to Liberalism". In: *History of Political Thought*, 3, 1982; 77-101 orr.
- WOODCOCK, George. *Anarchism*. Harmondsworth, Middlesex: Penguin, 1962.